

# Aretxagazeta

ETA GAINERA...

## Ze barri?

GAIA

Nera Abad Gaztekantoiko begiraleari elkarrizketa /8

TXUTXUMUTXUA

Inoiz baino herritar gehiago eskiatzen /9

LEINTZ GATZAGA

Toki Eder elkartearen itxita datozen astetan /10



## IBAN DA SILVA, HERRIKO UDALTZAIN BERRIA

**GUARDIAKO FARMAZIA**

**ZAPATUA, 18**  
ITURRALDE, Mitarte 18..... 943 79 27 22

**DOMEKA, 19**  
ITURRALDE, Mitarte 18..... 943 79 27 22

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

**OROKORRAK**

Almen ..... 943 71 49 07

ARETXAGAZETA ..... 943 79 86 21

Faxa ..... 943 77 18 54

Basotxo ..... 943 77 09 81

Euskaltegia ..... 943 79 21 68

Gizarte laguntzailea ..... 943 71 18 62

Hezibide elkarte ..... 934 79 31 32

Industrialdea ..... 943 79 62 80

Institutua ..... 943 79 79 00

Kirol etxea ..... 943 71 26 28

Kultura etxea ..... 943 71 10 27

Kurtzebarri Eskola ..... 943 79 00 49

Kurtzebarri BHI ..... 943 79 57 40

Liburutegia ..... 943 71 18 62

Loramendi EE ..... 943 77 09 70

Ludoteka ..... 943 79 05 81

Mankomunitatea ..... 943 79 30 90

Murruxio ME ..... 943 79 93 74

Musika Eskola ..... 943 79 36 50

Osasun etxea ..... 943 71 19 59

Otalora ..... 943 71 24 06

Parrokia (bulegoa) ..... 943 79 18 42

Pausoka Haur Eskola ..... 943 77 03 77

Postetxea ..... 943 79 28 31

Santa Rita Ikastetxea ..... 943 79 17 00

Saretxo ..... 943 71 26 56

Taxi geltokia ..... 943 79 22 33

Udal Bulegoak ..... 943 71 18 62

Udaltzaingoa ..... 943 71 18 63

Urats Gain ..... 943 79 99 11

**UDALTZAINGOA**

Arrasate ..... 943 79 14 39

**LARRIALDIAK**

SOS Deiak ..... 112

Eskualde Ospitalea ..... 943 03 53 00

Ertzaintza ..... 943 79 71 99

Gurutze Gorria ..... 943 76 55 76

Larrialdia ..... 943 46 11 11

Suhiltzaileak (Onati) ..... 943 78 28 00

**MEZAK**

**ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA**

Domeketan: 11:00/12:00

Zapatuetan: 19:30

Lanegunetan: 19:00

**SANTA RITA**

Domeketan: 09:00/10:00

Lanegunetan: 08:00

**BASERRI AUZOETAN:**

**ARIENTZAN**

Domeketan: 12:30

**GALARTZA**

Domeketan: 11:30 (Otoitzaldia bakarrik)

**OHARRAK**

**'NATATXA' UMEENDAKO ANTZERKIA**

Bihar, zapatua, *Natatxa* umeendako antzerki emanaldia egingo dute, kirol etxean, 15:00etan. Sarrerak salgai daude dagoeneko, 2,50 euroren truke, ludotekan eta kirol etxean. Eta bihar bertan, leihatilan, 3,6 euroren truke.

**SAN BIZENTE EGUNA AREANTZAN**

Areantzako auzotarrek San Bizente eguna ospatuko dute urtarrilaren 22an. Arratsaldean, ongietorria izango da, auzoko soinu jotzaileekin; 17:00etan, bestalde, meza izango da, San Bizenteko ermitan; eta gero, Garaikoraino joango dira, eta hantxe solasaldia egingo dute.

**BASOTXOKO ERRETIRATUEK BENIDORMERA BIDAIA JOATEKO AUKERA**

Basotxoko erretiratuek apirilaren 27tik maiatzaren 11ra bitartean Benidormera bidaiari aukera izango dute. Interesatuok izena eman beharko dute lehenbailehen Basotxoko bulegoan, 11:30etik 12:30era bitartean. Erretiratu bakoitzak 396 euro ordaindu beharko ditu txangoa egiteko. Aurrez, izena ematerako orduan, 100 euro ordaindu beharko dira.

**LORAMENDIREN AGENDA**

**DEBAGUNEREN EGUTEGIAK**

Debaguneren egutegi berriak salgai ditugu, 2,5 euroren truke.

**LORAMENDI LITERATURA LEHIAKETAKO SARI BANAKETA**

Loramendi euskara elkarteak antolatutako eskola arteko XIII. Loramendi Literatura Lehiaketako sari banaketa egingo dute hilaren 23an. Arratsaldeko 7etan izango da ekitaldia, udaletxe zaharrean.

**ORAINDELA 8 URTE ARETXABALETAN**

**Baso ugari erre ziren Aretxabaletan eta Zubillagan**

Suak kalte ugari egin zituen orain dela zortzi urte Aretxabaletako eta Oñatiko basoetan. Denera, 200 hektareatik gora erre zituen Urkulu eta Zubillaga artean izandako suak. Hala, Galarriako, Kortaburuko, Gorordoko eta Ursabalgo inguruetako hainbat pinudi nahiko kaltetuta geratu ziren.



**BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

Kiiiiinnnnnnn xxxx!!!

**"Topekaria"**

Burukada, burukoa (buruan hartutako kolpea).



**ZORIONAGURRAK**



ARETXABALETA  
**Eñaut B. de Heredia**  
17an, urtebete. Zorionak, Alaitzen eta etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Fernando Berrizbeitia**  
21ean. Urte askotarako! ARETXAGAZETAKO batzordekideen partetik.



ARETXABALETA  
**Ianire Galindez**  
14an, 14 urte. Beti bezain irribarretsu jarraitu. Ama, aita eta Iban.



ESKORIAITZA  
**Manex R. Agirregabiria**  
20an, 14 urte. Urte askotarako, eder hori! Etxekoak.



ESKORIAITZA  
**Julen Agirregabiria**  
23an, 3 urte. Urte askotarako, *terremoto!* Etxekoak.



ARETXABALETA  
**Maider Errasti**  
23an, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Ekaitz Cabero**  
14an, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Pedro Mendieta**  
11n. Zorionak eta besarkada handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Kaiet Gonzalez**  
17an, urtebete. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Malena Gonzalez**  
19an, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.

**LIBURUTEGIKOTXOKOA**

**'Aizak eta aizan ...'**

Dona dona sailleko hirugarren liburua duzue honako hau. Sail horretan ahozko tradizioetik jasotako ipuinak, kantuak, asmakizunak, hitz jokoak, eta abar batzen dira. Oraingo honetan, Lertxundik elkarriketa moduko itxura duten egitura literarioak eta hizkuntza baliabideak batu ditu. Batzuk tradizioetik ekarritakoak dira eta beste batzuk asmatuak, baina, tradizio horren itxura gordeaz. Olariagaren marrazki ederak, gainera, testua interpretatzeko lagungarriak dira.



**AIZAK ETA AIZAN ELKARREKIN DANTZAN**

Anjel Lertxundi  
Elkarlanean  
186 orrialde

Zortzi urtetik aurrera irakurtzeko edo jolasteko moduko liburua duzue. Opari bat egiteko ere oso egokia.

JOSEBA LOPEZ DE ARMENTIA

**ARQUERO**

**CONSTRULAN S.L.**

**ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK**

Tel.: 943 79 01 51  
Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:  
**Lyonel Arquero**

Dekorazioa:  
**Soraya Arquero**

**Expres**

Santakurtz, 16  
943 79 23 43

**ANA'S**

jantzidenda

Iparragirre 4.  
Aretxabaleta


**BAR GUREA**

JAFETXEA


EGVNEKO MENYAK OTARTEKORAK ETA PLATER KONBINATYAK

DURANA 32 • TEL. 943 792064  
ARETXABALETA


## ATREBENTZIAEZPADA/ Rebajak aprobetxetan ditzuzu? Nora faten zara horreik erosketok egittera?



**TERE SÁNCHEZ**  
langillie



**OSKAR FERNÁNDEZ**  
langillie




**JUANJO ASTONDOA**  
jubilaue



**DOLORES JORGE**  
langillie



**RAKEL GARCÍA**  
langillie



**RICARDO CALLEJA**  
langillie

Bueno, zertxobait suertetan bada, ondo, baiñe bestela ez dot askorik aprobetxetan rebajak. Fatekotan, Gasteizera faten naz. Han aukera hobiek egoten die la uste dot.

Ez. Zerbaiten biherria badauket faten naz, baiñe ez rebajak dielako. Aurten, adibidez, txamarra bat erosi dot. Jeneralien, Bilbora faten naz horreik erosketok egittera.

Ez. Andrie faten da, baiñe neu ez. Gaiñera, ez jat askorik gustetan rebajak. Prezio onien daguelakuen zerbait erosi, eta handik hiru egunera zatarra dala pentsetan jatzu.

Ez. Zerbaiten biherria badauket, orduen faten naz rebajetara; bestela, eska-paratiek begittu bai, baiñe ez dot ezer erosten. Arrasaten eta Aretxabaletan egitten dittut erosketak.

Bueno... gogoko zerbait ikusi ezker, erosi egitten dot, baiñe bestela ez naz korrika faten rebajetara. Aurten, txamarra on bat erosteko gogue dauket. Gehixenetan, Arrasatera faten naz.

Ez. Jeneralien, biherria dauketenien erosten dittut gauzak. Justo orduan rebajak izeten badie, ondo, eta bestela be bai. Ez naz dendaz denda ibiltten dietetakue. Gasteizera faten naz.

### TXALOAKETATXISTUAK



**TXISTUAK APURKETAK URATS GAIN EGOITZAN** Azkenaldian Urats Gain zaharren egoitzakoek ez dute bakerik. Egoitzaren atzeko aldean dagoen txokoa betidanik ibili izan dira gazteak. Oraingoek, baina, egon bakarrik ez, apurtu, erre, jendea iraindu eta edozein pertsonarekiko errespetua galdu dute. Horiei guztiei, euren jarrera lotsagarriengatik, txistu handi bat. /A.L.

### ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN /04

#### Beroari gainbegiratu

Valentin Etxeberriak -22 urtez Beroan langile izandakoa- Beroaren historia kontatu digu.

ASTEAN BEHIN /05

#### Iban da Silva udaltzain berria

Iban da Silva Aretxabaletako udaltzain gazteari elkarrizketa egin diogu ARETXAGAZETAn.

KIROLAK /06

#### UDAKo preferente taldea

Oraingo asteburuan, UDAKo preferente taldeak berritasunekin ekingo dio ligako bigarren zatari.

### ASTEKODATUA

# 314

#### LAGUNEK HARTU DUTE PARTE LITERATURA LEHIAKETAN

Aurten, 314 lagun aurkeztu dira Loramendi Literatura Lehiaketara. Iaz, berriz, 175 lan aurkeztu zituzten. Loramendi Literatura Lehiaketan izan diren berritasunengatik igo da parte-hartzea.


### BESTE EKESANA

**“Azken batean, futbolearen izaten diren gorabeherak dira hauek. Ekipora heldu nintzenean, aurreneko postuetan zegoen eta aurrean geratu zen bere taldean. Baina igoera ligatxoan ez genuen gure helburua lortu, eta bigarren mailako atean geratu ginen. Aurten hasieratik gauzak oso ezberdinak izan dira, guztiz kontrakoak: gezurrak eta engainuak nagusitu dira, eta egoera honetara heldu gara. Hiru edo lau hilabete irauten du dagoneko egoera honek.**

**Nik uste dut eurek hau (Motril taldea) kapritxo moduan zutela. Izan ere, Granadakoak dira eta enpresa bat dute. Bi urterako hitza hartu zuten, baina lehen urtean Motrileko udalak eta jendeak kasurik ez dietela egin ikusita, aspertu eta joan egin dira.**

**IGOR ARENAZA**  
GOITB/03-01-09

### HERRITARRENBERBAK/ Anjel Bergaretxe



*Felisi erantzuna*

**J**oan den asteko ARETXAGAZETAn, eta Felis Beltranek sinaturiko artikuluan, egia ez diren baieztapen pare bat egiten ziren, eta beraz, gai honi buruzko eztabaidaren mesederako, hauek argitzea komeni dela uste dut.

Alde batetik, urrian PNV eta EAK (PSOE eta PP-rekin batera), atzera bota zuten proiektua, ez zen BATASUNAREN proiektua, Udalak (PNV eta EAren onespenerekin) kontratatutako arkitektoak egin zuena baizik. Horrez gain, proiektua egiten ari zela, herriko hainbat kultur eta giza eragileekin ere alderatu zen, eta baita euron ekarpenak jaso ere.

Bestalde, ez da egia PNV eta EAK beste proiektu bat aurkeztu dutenik. Eta ez dute aurkeztu, lehenik proiektu bat egitea garesti delako oso, eta normala da alderdi bat edota talde bat eremu horietan ez sartzea. Eta bigarren, nire ustetan eurok be ez daukatelako oso garbi zer egin nahiko lukeen (zerbait egin nahi dute?). Egia da aurkezturiko

proiektuari euron ezetza justifikatu nahian edo hainbat ideia(?) bota dituztela (kuartelean etxebizitzak egin, kultur aretoa Copreciko aparkalekuan eraiki...), baina guztiei ere aitzaki usai hartzen zitzaizen, bat ere landugabeak, eta isilik ez geratzearen jaurtitakoak ziruditen.

Saila da beraz Felisek proposaturiko eztabaida burutzera. Dena den, horrelako eztabaidak egiteko aukera, ia hilerio ematen da, baina ez Karmelo Azkoitiaren eta Anjel Bergaretxeren artean bakarrik, Udal batzarra osatzen dugun

13 zinegotzior artean baizik. Lokal arazorik ere ez dugu, hartarako izendaturik daukagu eta pleno aretoa, eta gainera herritarrek libre daukate etortzea, eta baita hitz egiteko aukera ere. Beraz, jarritako baldintza denak betetzen direla uste dut. Zoritxarrez, mintzagai duguna jorratu zenean, beste gehienetan bezalaxe, egia esan, ez zen herritar askorik bertaratu. Felis subkoman-dantea bera ere ez genuen ikusi.

**“Eztabaidak egiteko aukera ia hilerio ematen da, baina ez Karmelo Azkoitiaren eta Anjel Bergaretxeren artean bakarrik”**

# Aretxagazeta

Durana 11  
20550 ARETXABAETA  
Tel.: 943 79 86 21  
Faxa: 943 77 18 54  
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA  
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA  
Mirari Altube  
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA  
Goio Arana

PUBLIZITATEA  
Ziortza Martín

ZUZENTZAILEA  
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA  
SS-378-94

ISSN  
1134-2609

TIRADA  
4.100 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriritzako Kultura Saila

Gipuzkoako Foru Aldundia

Aretxabaletako Udala

Eskoriatzako Udala

Leintz Gatzagako Udala



BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

## Zero azpitik

Hau da hau astea izan duguna. Termometroetako zenbakiak marratxoaz azaldu dute. Herriko termometroetan ikusi dudana hotz-berorik baxuena 4 gradu 0 azpitik izan da. Gradu horiekin normala izotza egitea, a ze lanak izan nituen izotza autotik kentzeko. Beste leku batzuetan hemen baino giro hobea egingo du. Benidorm-en adibidez. **Jubilatuak** bidaia antolatuta dute hara, apirilean. Horiek bai ondo moldatzen direla. Ni behintzat ezin izango naiz joan. Dena dela, aprobetxatu dezatela, eta joan gura duenak agudo ibili beharko du, bestela joan barik geldituko da eta.

Jubilatuak Benidormen ospatuko dute, baina arientzarrek laster izango dute Arientzan jaieguna. Urtarrilaren 22an **San Bizente eguna** ospatuko dute. Arientzarrek ez dira geldirik egotekoak, eta euren saltsan ibiliko dira.

Auzo batetik beste batera. Apotza-Etxebarriko San Blas ermitan burdinazko atea jarri dute. Antza denez, auzoetako elizetako aterpeak zaborrez beterik egoten dira, baten batzuek lasai-lasai uzten dute zaborra edozein lekutan. Kasu horietan egokiena heziketa da, eta nik ere, telebistak bezala, neure mezua bidaliko dizuet: ingurugiroa zaintzea guztion lana da, egin dezagun gure ahalegintxo.

**HISTORIA/** Valentin Etxeberriak, 83 urteko aretxabaletarrak, 22 urte eman zituen Beroa lantoki zaharrea lanean

# Beroari, ia ehun urteko historia handiari, gainbegiratu txikia

AMAGOIA LASAGABASTER

**Beroa lantokia botatzeko lanek aurrera jarraitzen dute. Dagoeneko zati handi bat lurra dago. Hondeatzeko makinek, baina, ez dituzte habeak eta zementuzko hormak bakarrik bota: ia mende bateko oroitzenak ere lurra utzi dituzte.**

Herritar askorendako itxura txarra zuen, eta kea besterik botatzen ez zuen lantoki ikaragarri bat izan da Beroa fabrika zaharra. Valentin Etxeberriarendako, berriz, bere bizitzako parte izan da lantoki hori. Valentin urtetan ibili zen Beroan lanean. Eta Valentin aurretik, aita ere, Celedonio Etxeberria, Beroako zaintzaile izan zen, erretiratu arte.

### IA 100 URTEKO HISTORIA

Datu ofizialen arabera, Beroa lantokia 1925ean sortu zen, Aretxabaletan. Hala ere, Valentin esanetan datu hori ez da zuzena: "Gure aita 1926an hasi zen Beroan lanean, eta ordurako lantokiak hainbat urte zeramatzen zabalik. Horregatik, uste dut XX. mende hasieran sortutako fabrika dela". Edozelan ere, urte askoko historia du.

Valentin 1941ean hasi zen Beroan lanean. Orduan, Arrue anaiena eta Izagirrerena zen lantokia. Ez zuten aparteko makineria modernorik, baina gerra garaian guztiaren beharra zegoen, eta urtetan, Beroan aluminioaren laminazioan etenik barik ibili ziren lanean. Dena dela, produktioa bera baino gehiago, Valentinendako eta beste ehunka lagunendako garrantzitsua goa izan zen Beroak eskaintzen zuen lana: "Garai hartan, Beroak gatzagarrei, Marulandako hainbat familiari, eskoriatarrei eta aretxabaletarrei eman zien lana. Eta gerora, ez hemengoei bakarrik, kanpotarrei ere beharra eskaini zieten lantoki hartan". Valentin ondo gogoratzen du garai hartan kanpotik etorritako lehenengo etorkinak zeintzuk



Herritar ugari hurreratu da egun hauetan Beroa lantokia zaharra zelan botatzen duten ikustera.

izan ziren: "Aurrenekoak zamarrak izan ziren; gero, berriz, gerra ostean, 1950. urte inguruan, errioxarrak eta beste leku askotakoak etorri ziren. Gerora, Copreci eta horrelako kooperatibek lan handia egin dute herria-

ren hazkunderaren alde, baina hemen lana eskaintzen lehenengotarikoa Beroa izan zen".

### ARGINDARRAREN ERAGILE

Lana eta soldata bakarrik ez, Beroak elektraindarra ere eman

ziren aretxabaletarrei. Izan ere, Francoren garaian energia murrizketak etengabeak izan zirela aipatu digu Valentin: "Hemen zonaka ematen zuten Iberduerok argindarra, baina mozketak izaten ziren, eta orduan, Beroak Donostiatik ekarritako 400 ZPko diesel makinekin ematen ziren indarra Gatzagari, Marulandari eta Zubillagako beste lantoki batzuei".

## Etxebizitzak egingo dituzte

Garai baten, pospolo fabrika izan zen; gero, laminazioan ibili zen; eta etorkizunean, hainbat etxebizitza batuko dituen auzunea izango da Beroak utzitako gunea.

Beroa lantoki zaharra bota eta gero, Arabako Urvasco enpresa eraikitzaileak 130 etxebizitza egingo ditu leku hartan. Etxebizitza horiek egiteko lanak 2001ean hasi behar zituzten, baina bete beharreko arau subsidiarioak onartzeko arazoak izan zirela-eta, lanak atzeratu egin ziren. LASA enpresak ere hasieran zehaztu baino urte bete geroago egin zuen Bainuetxeko industrialdera joateko lekualdaketa. Azkenean, 2002ko udan hasi ziren LASAko Bainuetxean lanean. Edozelan ere, lantoki zaharra ez dute guztiz botako. Bestalde, Aretxabaleta okindegia dagoen eraikin zatia bere horretan utziko dute.

### IZEN ETA IZAERA BERRIA

90eko hamarkada hasieran, bestalde, beste jabe batzuek hartu zuten Beroa lantokia, eta LASA-Laminados Aretxabaleta S.A.-izena jarri zioten. Aldaketa handiena, baina, 1992an egin zuten LASAkoek. Hainbat birmoldaketa egin ondoren, galdategian, laminazioan eta burdinazkoak ez ziren bestelako banden mozketan finkatu zuen behin betiko ekoizpena. Urte hartan, LASA merkatu lehiakorragoaren barne sartu eta nazioartera zabaldu zen.

## LEIBAR

arrandegia



Mitarte Kalea, 1  
Tel.: 943 77 13 79  
Aretxabaleta

GARBITU S. KOOP

Garbiketa  
orokorrak

Errekabarren 3- Behea  
ARETXABAleta  
Tel: 943 79 01 28

Aretz

taberna

Markole, 5  
Tel.: 943 79 14 67  
ARETXABAleta

INDUSTRIA HORNIKUNTZAK



URKULU, S.L.

Mitarte, 23  
ARETXABAleta  
Tel.: 943 79 96 66  
Fax: 943 77 10 33

**IBAN DA SILVA/HERRIKO UDALTZAIN BERRIA**

*“Oraindik ez dut isunik jarri, baina jarri behar baditut, jarriko ditut”*

AMAGOIA LASAGABASTER

Astebete besterik ez darama udaltzain lana egiten Iban da Silva gazteak. Ibanek 23 urte ditu eta, ARETXAGAZETAN arrasatearra dela idatzi genuen arren, hark elkarrizketa honetan aretxabaletarra dela esan digu, besteak beste.

Argi zenezake nongoa zaren?

Aretxabaletakoa naiz; horixe jartzen du nortasun agirian. Dena dela, ez naiz sarri ibiltzen herrian, eta, beharbada, jendeak ez nau ezagutuko.

Nolatan aurkeztu zine udaltzain izateko postura?

Egia esan, ez dakit oso ondo. Nik nazioarteko komertzioaren gaineko ikasketak eginak ditut, ETEOn. Horrez gain, publizitate eskolan ere izan naiz, baina azkenean, hara, udaltzain. Lanpostu horretarako instantzia heldu zitzaidan etxera, eta proba egitea pentsatu nuen.

Orduan pentsatu zenuen zu izan zintezkeela herriko udaltzain berria?

Hasieran ez, baina gero, probak gaintuz joan nintzen, eta aukera hori bazegoela ikusi nuen. Zeintzuk dira zure eginbeharrekoak?

Oraindik denbora laburra daramat lanean, eta ez dakit ondo. Edozelan ere, uste dut herria ondo zaintzea izango dela nire eginbeharreko nagusia.

Eta isunei dagokienez, gertu zaude horiek jartzeko?

Oraindik ez dut bakar bat ere jarri, baina jarri behar badira, jarriko ditut, duda barik.

Etxekoei ere bai?

Kar-kar-kar... Ikusi egin behar! Aretxabaletarrek ezagutzen zaituzte?

Oraindik, askorik ez. Ez naiz sarri ibiltzen herrian.

Eta aretxabaletarra izatea abantaila ala desabantaila da?

Abantailak dituela esango nuke. Nik, esate baterako, ondo dakizkit kale izenak.

Zelan joan dira lehenengo lane-gunak?

Hasierako egunak oso arra-



*“Uste dut herria ondo zaintzea izango dela nire eginbeharreko nagusia”*

roak izan dira. Uniformearekin atentzioa ematen dut, eta, gainera, berria naizenez, herritarren begiradak nigana zuzentzen dira. **Eta udaletxean zelan hartu zaituzte lankide berriek?**

Ondo, oso ondo.

**Eta udaltzainburuak?**

Ondo.

**Oraindik ez duzu ideia garbirik izango, baina noiz arte ibiliko zara udaltzain lanetan?**

Ideiarik ere ez. Badakit nik egindako ikasketek ez daukatela oraingo lanarekin zerikusirik, baina gustura nabilen bitartean jarraituko dut. Hori bai, neure

*“Aretxabaleta herri lasaia da, eta, oraingo, ez dago gaueko txandarik egin beharrik”*

burua ez dut ikusten bizitza osoan lan bera egiten. Dena dela, oraingo, pozik nago, lan lasaia da-eta.

**Txandaka egingo duzu lan?**

Bai. Orain arte, beste udaltzain batekin egiten dut lan, baina gerora, bakarrik hasiko naiz, eta aste baten goizez eta hurrengoan arratsaldez egingo dut lan. **Gauetz lan egingo zenuke?**

Aretxabaleta herri lasaia da, eta, oraingo, ez dago txanda horren beharrik.

**Lanetik kanpora zer duzu gustukoen?**

Bidaia eta kirola egitea.

**LABUR**

**Apotza-Etxeberri auzoko San Blas ermitan burdinazko atea jarri dute**

Lehenago Galartzako elizan egin zuten moduan, orain, Apotza-Etxeberriko San Blas ermitan ere burdinazko atea jarri dute. Orain dela aste bi jarri zuten ermitarako sarrera alderik alde ixten duen burdinazko atea, eta ondorengo egunetan margotu egingo dute.


San Blas ermitara, joan den aspaldian, dena zikin-zikin uzten zuten herritarrek inguratzen ziren. Kondoia, zaborra, su arrastoak... Denetarik aurkitzen zuten arduradunek ermitako atartean. Hala, Galartzako elizan egin zuten moduan, San Blasen ere atartea ixteko erabakia hartu zuten. Lan guztiak otsailaren 3rako amaituko dituzte, hau da, San Blas egunerako.

**Urtero moduan, San Bizente eguna ospatuko dute arentzarrek urtarrilaren 22an**

Areantzako auzotarrek San Bizente eguna ospatuko dute urtarrilaren 22an. Arratsaldean, ongietorria izango da, auzoko soinu jotzaileekin; 17:00etan, bestalde, meza izango da, San Bizenteko ermitan; gero, Garaikoraino joango dira, eta solasaldia egingo dute han.

Sasoi baten, San Bizente eguna baserri-auzoetako jai txikien garai barruan ospatzen zuten. Aozaratzan San Antonak ospatzen zituzten eta Koruetan, Santa Inesak. Arentzarrek, berriz, bi egun zituzten: San Sebastian eta San Bizente. San Sebastianetan eliza nagusian izaten zuten meza eta San Bizentetan, ermitan. Gero, opila eta pattarra banatu, eta auzoko kontuen gaineko batzarra egiten zuten.

**TXUTXUMUTXUA**



**Arberako bidean artelana (?) ikus dezakegu**

Antzinako arbasoek kobazuloetan egiten zituzten marrazkiak. Orain, berriz, harrian bai, baina ageriko harrian egin ditu herriko artistaren batek bere lanak. Hain zuzen ere, Arbe baserrirako bidean dagoen harri handi baten goiko argazkian azaltzen diren marrazkiak egin ditu norbaitek. Aitona-amonaren eta baserri baten marrazkiak eta *Aupa Erreal*a dioen idatzia egin ditu horman, besteak beste. Marrazkiok ikusi dituzten herritarrek era guztietako iritziak bota dituzte.

**EZKUTU**  
TABERNA

**ZATOZ GURE MUSIKAZ GOZATZERA**

Mitarte, 9 • Aretxabaleta  
Tel.: 943 79 92 01

**Miren & Zuriñe**

Bitxitegia • Erlojudenda  
Bitxien diseinua  
Bitxien konponketa

Otalora, 4 (eliza aurrealdean)  
Tel.: 943 77 13 57  
ARETXABAleta

**AMETS**  
TABERNA

Iparragirre, 4  
Tel.: 943 79 01 29  
**ARETXABAleta**

**Maritxu**  
drogeria  
mertzeria

Araba Ibilbidea, 24  
Tel.: 943 79 23 53  
ARETXABAleta

FUTBOLA

## UDAKo preferente taldea beheko postuetatik gertu dago

Azaroaren 24a ezker ez dute partidu bakar bat ere irabazi Bittor Muxikaren mutilek

MIRARI ALTUBE

Aspaldian burumakur dabilta UDAKo preferente taldekoak. Gogotsu irteten dira zelaira, baina ez dute golik egiterik lortzen. Joan den asteburuan, derbia izan zuten, Bergararen aurka, eta galdu egin zuten. Orain, ligako bigarren zatiri egin behar diote aurre.

Etzi, domeka, jokatuko du UDAKo preferente taldeak ligako bigarren itzuliko lehenengo partidua. Aurretik, 19 jardunaldi dituzte liga amaierarako, eta beheko postuetatik libratzeko, gutxienez, 24 puntu beharko dituzte. Momentu honetan, beheko mailara jaisteko postuetatik bi puntura besterik ez dago UDA.

### ALDAKETAK

Beharbada krisialdi txiki hori dela eta, UDAKoek taldean aldaketak egitea pentsatu dute. Hala, bi berritasun egin dituzte: bate-tik, Gasteizko Aurrera Vitoria taldeko Alvaro Barriga erdilari gaztea fitxatu dute; bestetik, Jose Ramon Prieto, orain arte kadete mailako zuzendaria, bigarren



AITOR URIZAR

UDAKoek gol aukerak eduki arren, domekako derbian Bergara izan zen nagusi.

entrenatzaile lanetan jarri dute. Aldaketa horiekin taldea indartu gura izan du UDAKo zuzendaritzak. Edozelan ere, argi utzi dute Bittor Muxika entrenatzailearengan konfiantza osoa daukatela eta liga bukatu arte ez

dela entrenatzaile aldaketarik izango taldean.

Aurrera begira, UDAK helburu nagusi bi ditu: bata, partidu onak jokatzea; eta, bestea, beheko postuetatik aldentzeko beharrezko puntuak lortzea.

XAKEA

## Arlutz Xake Taldeak partidu guztiak irabazi zituen Euskal B Ligako azken jardunaldian

Euskal B Ligako azken jardunaldian Arlutz Xake Taldeko xakelariak 0-4 irabazi zioten Gasteizko Egidazu Xake Taldeari. Hala, Arlutz Xake Taldeak goiko postuetan jarraitzen du Euskal B Ligako sailkapenean. Hurrengo jardunaldian, bestalde, derbia jokatuko dute aretxabaletarrek. Hain zuzen ere, Arrasateko San Andres Xake Taldea izango dute aurrez aurre.

FRONTENISA

## Etzi, domeka, jokatuko dute Debagoieneko Frontenis Txapelketako finala

Domekan, hilak 19, Debagoieneko masterretako Frontenis Txapelketako finala jokatuko da. Candido Hurtadok eta Jose Izquierdok Iñaki Sánchezen eta Kepa Garcíaen aurka neurtuko dituzte indarrak. Finalaren aurretik, baina, hirugarren eta laugarren postua erabakitzeko partidua jokatuko dute Oskar Mendozak eta Roberto Lópezek Patxi Vallejos en eta Xabi Albusuaren kontra.

### PARTIDUAK

#### FUTBOLA

**UDA-Real Union**  
Preferentea.  
Domeka. 16:30. Ibarra.  
**UDA- Martutene**  
Gazteen Euskal Liga  
Zapatua. 16:30. Ibarra.  
**UDA-Arrasate**  
Infantilak.  
Zapatua. 11:30. Ibarra.

#### PILOTA

\*Urtarrilaren 25ean hasiko dute Udaberriko Txapelketa.

### EMAITZAK

#### FUTBOLA

**UDA 1 Bergara 2**  
Preferentea.  
**UDA 3 Gazteak 0**  
Gazteen Euskal Liga.  
**UDA 3 Amaika bat 2**  
Bigarren mailako erregionala.  
**Eibar 3 UDA/Almen (b) 1**  
Bigarren mailako gazteak.  
**UDA/Almen (c) 1 Vasconia 6**  
Bigarren mailako gazteak.  
**Arrasate 3 UDA 2**  
Lehenengo mailako kadeteak.

#### Ikasberri 6 UDA 1

Lehenengo mailako kadeteak.  
**Beasain 0 UDA 1**  
Infantilak.  
**Bergara 3 UDA/Almen 1**  
Emakumezkoen ligan.

#### PILOTA

Ez zuten txapelketako partidurik jokatu.

# GATZA ETA BERAKATZA...

## Gertuko sukaldea, gertu-gertutik!

Egunero,  
13:30ean, 16:00ean,  
19:45ean eta 21:45ean

**Goitb**  
Goiena Telebista

**Ikusiko  
duzu!**



## MUNDUTARRAKARETXABALETAN

### ARANTXA ARREGI

IRAKASLEA / ANDOAIN

## “Ez naiz sustraiak erraz botatzen dituen horietakoa”

AINZANE GARDOKI


Laster 7 urte beteko dira Arantxa Aretxabale-tara etorri zela bizi izatera: “Esatea pin-pirin samarra izan arren, maitasunak ekarri ninduen Aretxabale-tara. Hemengo da senarra, eta hemengoak dira izan ditugun bi seme-alabak ere”.

Arantxak gaztetan utzi zuen Andoain: lehenengo, Bilbora joan zen, Biologia ikasketak egitera; gero, berriz, Granadan egon zen. Botanikako espezialitatea egin zuen han: “Ez naiz sustraiak erraz botatzen dituen horietakoa. Erraz utzi nuen Andoain, eta gaur egun Aretxabale-tan oso gustura bizi naizen arren, alde batetik bestera erraz mugitzekoa naizela uste dut”. Granada utzi, eta AEBetara joan zen. Boisen egon zen, 10 hilabetez: “Ingelesa aitzakia hartuta joan nintzen hara, nahiz eta seguruenik beste arrazoi batzuk ere izango ziren tartean”. Senarra opor-rak pasatzera Boise-ra joan zen egun berean Arantxa


Euskal Herrira itzuli zen: “AEBetan ez genuen elkar ezagutu, baina gero, Boisen egondako lagun koadrila batek afaria egin genuen, Oñatin, eta afari hartan eza-

*“Lagunak eta familiakoak ikusi gura ditudanean, oso gertu ditut, ordubetera-edo”*

gutu genuen elkar. Geroztik, hemen bizi naiz, eta lehen esan dudanez, oso gustura, gainera”. Senarraren koadrilako bikote asko Aretxabale-takoak ez izateak asko lagundu zion Arantxari: “Ez nuen inolako arazorik izan, baina hasiera-hasieratik elkar ulertzea egon zen gure artean. Dena dela, ez zait gaitza egin hona etortzea, lagunak eta familiakoak ikusi gura ditudanean, oso gertu ditudalako, ordubetera-edo”.



## HURRETIK



### Ibon Antero

Hiruatz elkartekue

Oin dala 4 urte inguru etorri zan Ibon Donostiatik Aretxabale-tara. Hiruatzeko kide da, eta beti gertu egon da herrialde pobrienei lagunketako. Ahalegin horretan, oin, Ekuadorrera fango da.

Zertara zoiez Ekuadorrera?

Hiruatz, Mundukide eta Markinako Munduzabal elkartien laguntziekin interkooperaziño proiektu baten parte hartze-ra noie. Bestiek beste, neure helburue da Kitcwa indigenengandik ahal doten dana ikastie.

Zein da hara fateko dauketzun arrazoi haundixena?

Uste dot ze ikesteko asko dauketela hango herrixetan. Gaiñera, geure laguntzie biher daue.

Gaztie eta solidarixue, hori posible da? Jakiña, ez die kontrajarririk; alderantziz, esango neuke.

Ameriketako Estatu Batuetako presidente bazitze, ze egingo zeuke?

Dimisiñue aurkeztu. Baiñe hori baiño lehen, Defentsa Ministeriuaren aurrekontue hartu eta herri pobrietan inbertiduko neuke.

Maiteminddu zauen leku bat?

Askok gustetan jat Putxerri mendi tontoretik daguzen bistak.

Ze eruenge zeuke hamendik Hirugarren Mundura? Eta handik ze ekarriko zeuke?

Herrialde garatuek osten ditudun baliabide naturalak itzuliko nittuke Hirugarren Mundura. Ekarri, barrez, hango jentiek bizi izeteko daukon ilusiñue.

Iñoix pentsau dozu bidaian fan eta etxera barrero ez bueltetie?

Gatxa da Euskal Herrixen bizi izenda hori pentsetie...

Gustoko janari bat?

Patata-tortillie. Egitteko errexa eta jateko mundiala!

AMAGOIA LASAGABASTER

## NIREBIDAIAHURA/ Irma Arabaolaza

Australia / 2003an, urtarrilean

Irma guk azkeneko asteotan bizi dugun hotz eta negu girotik urruti dabil, Australian: “Gezurra badirudi ere, hemen egun batetik bestera bero handiagoa daukagu. Uda da, eta dagoeneko beltzaran ere jartzen hasita gaude”. Melbournen hasi dute urte berria. *Sushia* eta izokina jaten, mahats-aleekin lagunduta, hori bai, hondartzan ospatu zuten Gabon zaharra.

Aurretik, Dorrigo parke naturalean eman zituzten egun batzuk. Eta gero, menditik itsaso aldera egin zuten salto. Australia ekialdean dagoen Byron Bayen surflarien herrian egun batzuk egin zituzten: “Arts Factory ostatuan egon ginen; ize-nak dioen moduan, *arten sorlekua* da. Goizero ekintza ugari egoten ziren egiteko. Guk *tai chi*-a egiten genuen eta *didgeridoo* aborigenen musika instrumentua jotzeko ikastarotxo ere egin genuen. A ze deskalabrua!”.

Handik, Frazer Island uhartera joan ziren: “Lanrober bat errentan hartu, eta munduko hareazko uharte handiengan ibili ginen. Era askotako animaliak ikusi genituen: dingoak, sugeak, marrazoak... Ur ertzean geundela, itzal izugarri bat ikusi genuen. Zer zen galdetu, eta marrazoa zela esan ziguten. Ikusgarria izan zen. Uharte hartan McKenzie lakua dago: inoiz ikusi dudana paraje zoragarrietakoa, paradisua!”.

Gero, lagun talde batekin belaontzi txiki bat hartu, eta inguruko beste hainbat uharte bisitatu zituzten: “Egurdiak ez zigun lagundu, eta erdi mareatuta ibili ginen. Arrainak eta koralak ikusi genituen, baina, nire iritziz, Thailandian ur azpian ikusitakoa ederragoa izan zen”. Australian daudenetik ehunka animalia mota ikusi dituzte, baina kangururik ez: “Oraindik ez dugu kangururik ikusi; edozelan ere, koalak ikusi ditugu dagoeneko”.

AINZANE GARDOKI



Beste lagun batzuekin batera hainbat leku bisitatu ditu Irma.



ORAIN...  
SOLARIUM  
BERTIKALA


Kixkur  
ILEAPAINDEGIA

Loramendi 11. Tel.: 943 79 90 79. ARETXABALETA

## JOSU HARATEGIA

Urdaitegia-Gozotegia  
kroasantegia  
Janari prestatuak

Mitarte kalea  
ARETXABALETA  
943 77 03 08



## MAPFRE Aseguroak

Errekabarren, 3  
Aretxabaleta  
Tel.: 943 77 11 76



FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak  
Ongarriak- Haziak

Mitarte, 7 behea  
ARETXABALETA  
Tel. 943 77 00 33/79 42 56

# Ze barri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2003ko urtarrilaren 17a / 109. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

## Ehizarako postuak dituzten lurren jabeek euren interesak defendatu gura dituzte

AINTZANE GARDOKI

Lurjabe horien eskubideak defendatzeko asmoz, orain dela bi urte inguru, Ehizaz Nozitutako Gipuzkoako Lurjabeen Elkarteak jaio zen Gipuzkoan. Elkarte horrek Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatu dio bere egoera erregulatzeko ordenantza bat kaleratzea.

Eskoriatzan 138 ehiza-postu daude. Postu horiek dauden auzoetako lurjabe gehienek, %90ek, bat egin dute Goierrin sortu den eta lurjabeen eskubideak defendatzea helburu duen elkartearekin: "Guk ez dugu ehiztarien kontra egin gura, eta inondik inora ere ez dugu arazorik izan gura inorekin. Gura dugun gauza bakarra da Gipuzkoako Foru Aldundiak gure egoera zehaztea", esan

*"Guk ez dugu ehiztarien kontra egin gura, eta ez dugu arazorik izan gura inorekin"*

digute Eskoriatzako ehiza-postuak euren lurretan dituzten lurjabeek.

### IRTENBIDEAREN BILA

"Ehiza kontuetan, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Gipuzkoako Ehiztarien Federazioarekin batera ehiza-postuak dauden lurren jabeek ere parte hartu gura dugu. Gure lurrek etekin bat ematen dute, eta etekin horren banaketan ere zer esana izatea


*"Gure lurrek etekin bat ematen dute, eta etekin horren banaketan zer esana izatea bidezkoa da"*

bidezkoa dela uste dugu", diote lurjabeek.

Azkeneko hilabeteetan lurjabeek eragindako indarra delata, Foru Aldundiak ehiza-postuen zentsua egin du. Abenduaren 20ra bitartean egon da zerrenda hori ikusgai. Orain, datuak eskuan dituela, lurjabeen egoera erregulatuko duen araudia egingo duela uste dute lurjabeek. Hori gertatzen denean izango dugu argibide gehiago.



Gipuzkoako uso postuen hiru laurdenak lur partikularretan daude.



### Liburuak sailkatzen buru-belarri

Joan den astean esan genizuen, liburutegiko lanak amaituta daude. Orain, liburuzainen txanda da; izan ere, azkeneko asteotan buru-belarri dabilta liburuak sailkatu eta liburutegi berrira eramateko kaxetan sartzen.

Plazako liburutegian 14.000 liburu egon dira orain arte. Liburutegi berrira, berriz, liburu horietatik guztietatik 12.000 pasatxo eramango dituzte: "Besteak beste, azkeneko 10 urteotan ukitu ez diren liburuak ez ditugu beste aldera eramango", esan digu Iñaki Agirianok, liburutegi berriko arduradunak. Liburuez gainera, CDak, DVDak eta CD-ROMak ere jarriko dituzte liburutegi berrian. /A.G.

### NEREA ABAD/GAZTEKANTOIKO BEGIRALEA

*"Gaztekantoiak jarraipena izan beharko luke, nire ustez"*

AINTZANE GARDOKI

Nerea arrasatearra da, baina Eskoriatzako gazteekin eman ditu azkeneko asteburuak. Hura izan da amaitu berri den Gaztekantoi programaren arduraduna. Ikaslea eta langilea, umeekin eta gaztetxoekin eskarmentu handia du Nereak.

### Zelan joan da Gaztekantoi?

Orokorrean, oso ondo. Hogei gazte inguruk hartu dute parte Gaztekantoin. Gazteok esan digutenez, oso gustura ibili dira.

### Baina kexaren bat edo beste ere azaldu dute gazteek?

Egia da. Gazteak ez daude bate-re gustura lokalarekin; izan ere, ludotekan egoten dira, eta umeendako leku aproposa bada ere, eurek behin eta berriro esaten dute dagoeneko ez direla umeak.

### Egindakoen artean zer azpimarratuko zenuke?



Ekintza ugari izan ditugu egiteko, baina talde honek lasai egitea, bideoak ikustea edo berriektan egitea izan du gogokoago. Reala ikustera eta patinatzerara ere joan ginen. Zelan disfrutatu duten ikusita, merezi izan du lan hau egitea!

### Zer aldatuko zenuke?

Gazteekin benetako dinamika sortu gura badugu, Gaztekantoi programak jarraipena izan beharko luke. Etengabeko etenaldiek eta begirale berriek ez diote mesederik egingo Gaztekantoiari.



**TELEFONO JAKINGARRIAK**

**ESKORIATZA**

Udaletxea .....	943 71 44 07
Udal bulegoak .....	943 71 45 32
Udaltzaingoa .....	943 71 44 07
Euskaltegia .....	943 79 21 68
Kultura etxea .....	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea .....	943 71 31 36
Kirol etxea .....	943 71 53 28
Liburutegia .....	943 71 31 35
Luis Eceiza .....	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola .....	943 71 44 86
Almen .....	943 71 49 07
Museo Eskola .....	943 71 54 53
Axtroki .....	943 71 40 77
HUHEZI .....	943 71 41 57
Osakidetzak .....	943 71 44 52
Telesko .....	943 71 49 17
Taxiak .....	943 71 40 59

**BESTELAKOAK**

Eskualde ospitalea (Arrasate) .....	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara) .....	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate) .....	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati) .....	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga) .....	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz) .....	945 23 20 30
PESA (Arrasate) .....	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate) .....	943 77 10 43
SOS Deiak .....	112

**OHARRAK**

**'EUSKAL HERRIAN BIZITZEKO ESKUBIDEA'**

Bihar, zapatua, manifestazioa izango da, *Euskal Herrian bizitzeko eskubidea* lelopean. Herriko plazatik aterako da.

**ANTZERKIA ETA KONTZERTUAK**

Gazte Asanbladak antolatuta, etzi, domekan iluntzeko zazpi eta erdietan Anarik kontzertua eskainiko du Gaztetxean. Hilaren 24an, berriz, *Bella Makia Bella* antzezlan eskainiko dute Gaztetxean, 19:00etan. Eta hurrengo egunean, zapatuan, Xabier Montoyak disko berriaren aurkezpena egingo du Gaztetxean.

**AXTROKIRENAGENDA**

**DEBAGUNEREN EGUTEGIAK SALGAI**

Debaguneren egutegiak eskuratu gura dituenak Dorleta paper dendan, ditu salgai. Prezioa; 2,5 euro. Otsaila hasiera arte egongo dira salgai.

**AISIALDIA**

**Kritika ezin hobeak eta sari ugari jaso dituen antzezlan, datorren astean**

AINTZANE GARDOKI

*El hombre que confundió a su mujer con un sombrero* antzezlan izango da ikusgai datorren egubakoitzean HUHEZIKo Fakultateko areto nagusian. Ramon Barea da lanaren zuzendaria, eta lantalde handia du bere esanetara. Aktoreak Ramon Barea bera, Paco Sagartzazu, Inaxio Tolosa, Ander Lipus eta Itziar Lazkano izango dira. Txalo Produzioek gaztelaniazko bertsioa aurkeztuko dute Eskoriatzan. Kritika ezin hobeak eta sari bat baino gehiago jaso ditu antzezlan horrek: besteak beste, Aktoreen Elkarteak gizonko eta emakumezko aktore onenen sariak eman zizkien Sagartzazuri eta Lazkanori; 2001ean, euskal produkzio onenari emandako Ercilla saria ere jaso zuten. Hala, kalitatezko lan horrekin hasiko da aurtengo antzerki denboraldia. Izango dira gehiago.



Datorren egubakoitzean, 22:30ean, HUHEZIKo Fakultatean antzeztuko da lana.

**TXUTXUMUTXUA**



**Inoiz baino herritar gehiago eskiatzen**

Kirol Elkarteko Mendi Sailak antolatutako lehen eski irteerara 53 lagun joan ziren joan den asteburuan. Luz Ardidenen (Frantzia) izan ziren. "Gainera, lau lagun izan ezik, beste guztiok Eskoriatzakoak bertakoak izan gara. Bestetan, Aretxabaletatik eta Arrasatek ere jende ugari etorri izan da gure irteerara, baina oraingoan, geuk bakarrik bete dugu autobusa", esan digu Garbiñe Uribe antolatzaileak. Eguraldi eguzkitsua izan zuten: "Baina izugarritzko hotza izan genuen. Zapatuan, pistak utzi genituenean, zortzi gradu zero azpitik zegoen". Otsailean egingo dute bigarren irteera. /A.G.

**LABUR**

**Luzaroan kanpoan egon eta gero, herrian da Xanti**

Martxoaren 31n, 22 urte beteko dira Xanti Iparragirrek herri utzi zuela. Euskal Herriak bizi duen gatazka politikoaren barruan kokatu zen Iparragirreraren ihesaldia. Almen Ikastolako Bertso Eskolaren sortzailetarikoak izan zen Iparragirre. 22 urtez Iparraldean bizi izan da, eta han ere euskararen eta bertsoariaren inguruan ibili da lanean. Egora berean bizi zirenen beste lagun batzuekin batera Hegoaldera etortzea erabaki zuen orain dela aste bi Xantik.

**Kiroldegiko taberna laster zabalduko dute**

Udalak kiroldegiko taberna zerbitzuaren kudeaketa kontratatzeko deialdia egin zuen azaro amaieran. Abenduaren 4tik 19ra bitartean egon zen izena emateko aukera. Pertsona bakarra aurkeztu zen, eta, aurkeztutako herritarrek eskatzen ziren baldintzak betetzen zituzenez, Kirola, Euskara eta Kultura batzordeak proposamena ontzat jo zuen. Alkateak hartuko du azkeneko erabakia, baina dena normal joaten bada, datozen asteotan zabalduko dute kiroldegiko taberna.

**Aurten jaiotako lehenengo umeak neskak izan dira**

Urtarrilaren 2an jaio zen Eskoriatzako aurtengo lehenengo umea: Naia Carballares Quintas. 3,100 kilo pisatu zuen Naiak. Bestalde, martitzenean, hilaren 14an, aurten jaiotako bigarren umea erregistratu zuten: Miren Murillo Mateo. Eta Arrasaten bizi den beste eskoriatzar batek, Pepi Karrikondok, urtarrilaren 9an mutiko galanta izan zuen. Aspaldian Arrasaten jaio den mutikorik ederrena: 5,110 kilo pisatu zuen. Zorionak, denei!



**EDURNE**



Elektroterapia.

ESTETIKAN  
ESPEZIALIZATUTAKO  
ZENTRUA

Aranburuzabala 42  
Tel.: 943 71 51 54  
ESKORIATZA

**TOKI  
ALAI  
TABERNA**

Karajiloetan  
espezializatua

Tel.: 943 71 47 29  
-ESKORIATZA



**MIRENTXU  
TABERNA**

Kafe goxoa hartzeko  
Tel.: 943 71 41 67



Gustora egoteko!

Intxaurtxueta 8  
**ESKORIATZA**  
943 71 40 63

# Suak eragindako kalteen ondorioz, Toki Eder elkarteak itxita egongo da

AINTZANE GARDOKI

Zapatu iluntzean, 18:30ak aldera, sua piztu zen Garro jauregian. Lehenengo, kea zabaldu zen; gero, tximiniatik garrak irteten ari zirela konturatu ziren. Lehen ahaleginak herritarrek egin zituzten; gero, suhiltzaileen hiru kamioi gerturatu ziren sua itzaltzeko.

“Elkartean geunden lagun talde bat; janariak prestatzeko sukalde berria jartzeko geldituta geunden elkarteko batzordekideak. Bestetan baino ke handiagoa zegoela aipatu genuen. Berehala, goiko solairuan zeuden gazteak goian ke handia zegoela esanez etorri ziren. Begira hasi ginen. Hala, teilatuko tximiniatik su garrak irteten ari zirela ikusi genuen”, azaldu digu Dorleta Elkorobarrutiak, elkarteko batzordeko presidentek.

Ez zuten inondik inora surik antzematen, baina lehenengo solairuko tarimatik ke handia irteten ari zela ikusi zuten: “Katea egin genuen iturritik lehenengo solairuraino. Ez dakit horrenbeste balde nondik agertu ziren ere. Jendea lanean zebilen. Geroago eta ke handiagoa zegoen. Hasieran, gauza txikiagoa zelakoan geunden, baina beldurtzen hasi ginen eta suhiltzaileei abisatu genien”, gaineratu digu. Suhiltzaileek hiru ordu luze eman zituzten sua amatzen. “Dirudienez, beheko suaren tximiniak su hartu, eta, berotasunaren ondorioz, sabaiko habe batek su hartu zuen. Lehenengo eta bigarren solairuen arteko igeltsuaren eta oholtzaren artean hazi zen sua. Suhiltzaileek esan zigutenez, herritarrek egindako ahaleginak eta eurak garaiz heltzeak salbatu ei dute jauregia”.

Horren harira, astelehenean, peritua egon zen jauregian, suak kaltetutakoa ikusten. Orain, Udalak egin beharrekoen aurrekontua bidaliko dio aseguru etxeari.




AINTZANE GARDOKI

Peritua izan zen astelehenean, kalteak zenbatekoak izan diren ikusten. Laster hasiko dira lanak egiten.

*“Herritarren  
ahaleginak eta  
suhiltzaileak garaiz  
heltzeak salbatu  
zuten jauregia”*

Lehenbailehen hasiko dira lanak egiten. Datozen asteotan, dena dela, elkarteak itxita egongo da.



## Hego haizeaz jarri, zurituta kendu

Elurrak inguruak zuritu zuten Gatzagan. Eguraldiaren iragarpenek ez zuten bete-betean asmatu, batzuen mesederako eta beste batzuen kalterako. Umeak elur gehiago egiteko gogoarekin geratu ziren, baina gustura ibili ziren herriko zelaietan gora eta behe-ra. Eta Markole plazan egon diren jaiotza eta Olentzero garaian ezohikoa den hego haizeaz jarri bazituzten ere, elurrez estalita, zuri-zuri eginda, kendu zituzten zapatuan.

## LABUR

### Gatz Fabrikan zinema-besaulkiak jarriko dituzte

Zinemetan izaten diren moduko besaulkiak jarriko dituzte laster Gatz fabrikan. Udalak joan den azaroan hartu zuen erabakia: lehenengo solairuan jarriko dituzte, pantaila handia dagoen leku berean. 28 besaulki jarriko ditu Ezkarai-ko Euroseating enpresak. 5.134 euroko aurrekontua aurkeztu du enpresa errioxarrak. Hala, aurrerantzean, besteak beste, zinema emanaldiak erosoago ikusi ahal izango dira.

朋 自 有 不 子

Euskara "txinoa" bada zuretzat

...eta euskara zeurea egingo duzu.

Ni txinin, txirrin,  
txirrinduila, dulai...

UDAL  
EUSKALTEGIAK  
...

Ni txirrinduan  
nabil.



HABEren dirulaguntzaz

UDAL  
EUSKALTEGIAK



LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA  
Nafarroa 2 - 4, Aretxabaleta  
Intxaurtxueta 9 - 10, Eskoriatza  
Tel.: 943 79 21 68  
Telefax-a : 943 79 92 62  
leintzeuskalteg@terra.es

• Euskalduntze eta  
alfabetatze maila  
guztiak eta EGA.

• Bulego ordutegia: 09:00 - 13:00  
15:00 - 19:00  
• Matrikulazio epea: urtarrilaren 20tik  
otsailaren 14ra.  
• Bekatze sistemak eta diru laguntzak ditugu.  
GADETU!


TAFE

## DERMAJET

ETORRI ETA INFORMATU  
KONPROMISO BARIK

zelulitisarekin bukatzeko teknika berri eta ikusgarria


- Zelulitisa eta laranja-azala desagerrarazi
- Gorputz-bolumena txikitu
- Zirkulazioa hobetu
- Larruazalaren trinkotasuna eta tonua hobetu
- Zahartzearen kontrako efektua
- Ildasken itxura hobetu



**Gemes**  
edertze aretoa

Durana 40 ARETXABALETA  
943 79 99 18

# 1 euskal selekzioaren cd-rom jokoa



**902 010 735**  
Telefona 24 orduz.

## Imajina dezakezun guztia!



Egin ezazu zuk zeure hamaikakoa!



Aukera ezazu taktikarik egokiena



Jokatu:  
Munduko Txapelketa,  
Lagun arteko partiduak,  
sarean,...

Grafikorik onenak 3D-n  
Txilenak, erregateak, jaurtiketak,  
sarrera ikusgarriak, golen  
ospakizunak...

Giro-soinu aparta,  
Ikurrinak harmailetan...

Jokoaren estatistikak

Jokaldi onenen  
errepikapenak...

Lau futbol zelai aukeran.

Partiduak egunez, gauetz,  
euriarekin...



**euskal  
selekzioaren bufanda**  
Izakinak bukatu arte.

Zure etxean,  
72 orduan  
bidaltze  
gasturik gabe



**35,95  
euro**

Jokoa orain erosiz gero,  
bufanda eta garraioa

**DOAN**